

Martxoaren 20a: Zoriontasunaren Nazioarteko Eguna


Euskadiko gazte gehien-gehienek zoriontsuak direla diote

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, 2012ko uztailaren 12an onartutako [66/281 ebazpena](#)ren bitartez, **martxoaren 20a** [Zoriontasunaren Nazioarteko Eguna](#) izendatu zuen. Zoriontasuna eta ongizatea gizaki guztion bizi-xedea dela aintzat hartzea bai eta gobernuaren politiketan sartzearen garrantzia onartzea da izendatze horren asmoa.


Egun hori dela eta, Euskadiko gazteak zenbateraino sentitzen diren zoriontsu azaldu nahi du [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Horretarako [Gazteen Argazkiak 17](#) ikerketaren datuetan oinarritu da. Ikerketa hori urtero egiten du Eusko Jaurlaritzaren [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) Gazteen Euskal Behatokiarentzat. 17. edizio honetarako 15 eta 29 urte bitarteko 2000 gazte baino gehiago elkarriketatu ziren 2013an.

Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 29k oso zoriontsuak direla diote. Hauekin batera nahiko zoriontsuak direla adierazi duten % 60 kontuan hartzen baditugu, ondoriozta dezakegu Euskadiko gazteen % 89 zoriontsuak direla.

Datu horiek 30 urte eta gehiagoko biztanleriaren emaitzekin alderatuz gero, ikus dezakegu zoriontsuak direla dioten portzentajeak handixeagoak direla gazteen artean, 29 urtetik gorakoen artean baino. Oso zoriontsuak direla esan dutenen ehunekoei erreparatuz gero, adin tarte baten eta bestearen arteko aldea handiagoa da, hamaika puntutakoa, hain zuzen ere.



Bestalde, gazteen zoriontasun pertzepzioaren bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu zoriontsuak direla diotenen portzentajea pixka bat txikitu dela: % 92, [1996an](#) eta % 89, 2013an.



Emakume gazteek gizon gazteek baino proportzio handixeagoan diote zoriontsuak direla (% 91 eta % 88, hurrenez hurren). Emakume gazteen pertzepzio zoriontsuagoa mantentzen da denboran zehar, 1996an ere gehiago baitziren zoriontsuak zirela zioten emakume gazteak, gizon gazteak baino (emakume gazteen % 95 eta gizon gazteen % 90).

Jarrai gaitzazu sare sozialetan!

